



Maria
Arizmendi
Isasa
Kaxeta

1909-2001

BIDeGILEAK

Egileak:

Arantzazu Zugasti

Aitziber Salinas



MARIA
ARIZMENDI
ISASA
KAXETA

(1909-2001)

Euskaltzale amorratua

Garai zailetan ere bere buruari fidel izandako pertsonaren adibide argia da Maria Arizmendi, euskararen alde beharrezko zen guztia egiteko prest. Urnietan jaio zen Maria Arizmendi, Idiazabal kalearen amaieran, 1909ko maiatzaren 4an, Belandiako bulegoetako etxe batean. 2.000 biztanle inguru zituen herrian jaio zen, Kaxetan. Amona Josefa trenbideko pasabideko langaren zaintzailea izaki, Kaxeta izena hartu zuen betiko ondoren bizitoki izan zuen etxeak eta baita bertako kasta guztiak ere. Eta

Mariari ere, Kaxeta izena eman zion bizitokiak. Emakume euskaltzale, abertzale eta oso irakurria zen. Bere euskararekiko militantzia zein elizkoitasuna izan ziren bizitzako ardatz. Euskara normalizatzeko helburuz antzerki taldean aritu zen Gerra Zibila baino lehen, bitartean eta ondoren. Bere ekinak bideari ondo heldu eta uzteko momentua zuela ikusi zuen arte. Apal baina etengabe egin zuen lan Mariak euskal testuak taula gainera eramateko herriko gazteak zuzentzen.





Urnieta herrigunea Langardatik ikusita (1954)

HERRI EUSKALDUNA

XX. mende hasieran, Urnieta baserri giroko herri abertzale eta euskalduna zen, natura eta lasaitasuna ziren nagusi. Inguruko herrietako sagardogileak igandetan herrira gerturatzen ziren plazara, herriko musika bandak jotzen zituen soinuekin «al agarrao» dantzan egitera. Erromeriarik ez zen egunetan, Urnieta plazak zelaia zirudien. Urnieta udaletxea eta eliza tontorrean eta alde banatan trenbidea eta errepidea. Hain justu Urnieta alde batean (egun erditik zeharkatzen du) Idiazabal kaleak herriaren muga jartzen zuen. Horien

artean Belandiako bulegoak zeuden, eta bertan, Kaxeta etxea.

Alkizako Juana Josefa Zatarain, Iasaren alarguna, bizi zen Idiazabal kaleko Kaxeta etxean bere seme-alabekin: Jose Kruz, M.^a Josefa, Gregoria, Maria, Margarita, Sebastian eta Juanita. Jose Cruz eta Sebastian, Urnieta saskigile ezagunak izan ziren: Jose Kruzek Urnieta plazan egiten zuen lan eta Sebastianek txabola handi batean, bere etxearen aurrealdean, errepidearen beste aldean. Sebastian Isasak udalari baimena eskatu zion bera bizi zen etxean altxaera egiteko. Horrela, 1922ko abuztuaren 20an horrek baimena

emango dio «para elevar un piso en la casa n.º 28 de la calle Idiazabal» M.^a Joxepa Jose Domingo Arizmendi Mitxelenarekin ezkondu eta bien fruitu izan ziren Juan, Margarita, Enrique, Miguel, Maria eta Gloria. Mariak bi urte zituela hil zen Jose Domingo Arizmendi, sei seme-alaben aita, beraz, Mariak gazte zelarik hasi behar izan zuen lanean, amari laguntzeko.

Jostun lanetan hasi zen 17 urte zituela Idiazabal kaleko tailerlean bere ahizpekin batera. Bertako atea zabalik, josi bitartean, modaz gain, honekin zerikusi handirik ez zuten sare ugari egindakoa da Maria bertan. Baserrietatik herrira jaisten zirenak Kaxetan geratzen ziren, zapatak aldatu, salda hartu eta kontu-kontari aritzeko.

Euskaltzale amorratua, euskara arlo guztietan erabiliz hizkuntza bizirik mantentzea zuen bere jarduera guztietan helburu. Arizmenditarrek ezin zuten ukatu zainetan zuten abertzaletasuna eta konpromiso politikoarekin ezin bananduta zera-maten beti euskara. Euskaraz irakurtzen ohitura handia zuena zen Maria, meza liburu, *Arantzazu* aldizkaria edo Arantzazuko egutegiari esker hasieran, eta



Etxe atarian

euskal idazleek argitaratutakoari adi egon eta horiek irakurtzeko zaletasuna zuelako, ondoren.

Abertzaletasuna indartsu zegoen Gerra Zibila baino lehenagoko garaian, batzoki ugari inauguratu zen eta bertan inguru euskaldunagoa lortzeko lan egiten zen, ohitura zaharrak berreskuratzeko, ikastaro, hitzaldi, txango, festa eta jarduera ugari antolatuz euskarari bultzada eman nahian.

ANTZERKIGINTZAK GARRANTZI HANDIA

Antzerkigintzak garrantzia handia izan zuen borroka horretan, hizkuntza eta kultura sustatzeko primerako bitartekoa zelako, herritarrengana iristeko modu bikaina. Antzertiaren bidez, gainera, euskal dantza, musika, bertso eta abarrak taularitzen ziren. Askatasun egarriak eraginda, kultura pizkunde garaia izan zen Gerra Zibila aurretik Euskal Herri guztian. Euskal kulturak garai aberatsa bizi izan zuen eta horretan ere ekarpena egin zuen Maria Arizmendi *Kaxeta* urnietarrak.



Hiru ahizpak amarekin

4

Gazte zelarik hasi zen Maria antzerkian herrian, bere hiru ahizpekin batera, antzokia ere bazuen Batzokian izaten zituzten entseguak, Gerra Zibilean fusilatu zuten Roke Lasarteren zuzendaritzapean. Batzokia Matxoenean zabaldu zuten Errepublikara garaiko giroak lagunduta eta 1936an Gerra Zibila hasi arte iraun zuen zabalik. *Itziartxo*, *Biotz berak*, *Maitearen neurriz*, *Txibiribiri*, *Negarrez igaro zen atsoa*, *Damua garaiz* eta abar. Donostiako Kurtsaalean ere izan ziren pare bat aldiz *Negarrez igaro zen atsoa* eta *Uste diñat-Ya lo creo* lanak taularatu 1934ko Donostiako Lehen Antzerki egunean. Donostiako Kurtsaaleko Sasaki-Naski lokalean emanaldiak egin ohi ziren gerra aurretik. Antzerkia, kantaldia, dantza eta denetik izaten zen bertan, eta Mariak ere eskaini zituen emanaldiak.

Antzezlanen testuak tradizionalistak izaten ziren. Beti ere hizkuntza minorizatuan eskaintzen zituzten beren lanak batzokian, alfabetatu gabeko herriaren hezkuntzarekiko atxikimendu eta kontzientziazioa bilatuz, aktualitate gaiak eta arazoak landuz. Antzerkigintza he-

rrikoi eta modu kolektiboan egindakoak hartzen du indarra, sentimendu, pentsamendu eta helburu konkretu batzuen mendera.

Euskal egileen testuak hartzen zituzten oinarri Urnietako antzerkigileek eta ohol-tza atzealdean, fokuen atzean, Maria izaten zen obra bikain atera zedin adi. Gaiak ondo aukeratu beharra zegoen, herritarrengana iritsi behar zuten, alfabetatu gabeko hizkuntzan antzeztutakoa ulertu eta horrekin diberti zitezen lortzea ez baitzen erronka makala. Baina, beti ere, pentsamendu edo ideia zehatz batzuk gizarteratzeko helburua ahaztu gabe.

1860. urtean, dekretuz foruak indargabetu ziren, euskal nortasuneko legea bertan behera utziz. Horren harira, euskal kulturaren babes ezaren kontzientzia hartuta, euskal kulturak indar berezia hartu zuen eta horren bihotz zen euskararen aldeko aldarriak handiagoak. Inoiz baino euskaltzale gehiago bildu ziren hizkuntzaren alde eta poesia, bertsolaritza, narrativa, antzerkigintza, euskal irakaskuntza, kazetaritza... izugarri sustatu ziren, Euskal Pizkundea deitutako garaian. Antoi-



Bisita txartela

ne D'Abadien Lore Jokoak ekarri zituen Euskal Herrira, Urnietan 1886an antolatu zituzten euskal kultura goratzeko kultura eta folklore festa ezaguna.

Euskal kulturaren garai hoberena II. Errepublikan bizi izan zen. Euskalduntasuna balore abertzaleez eta kristautasunez zegoen bustia. «Jaungoikoa eta lege zaharra» lema sabindarretik oso gertu. Maria bera ere EAJko Emakume Abertzaleen Batzako kide zen eta, antzerkiaz gain, ekitaldi ugari antolatzen zituzten herrian bertan.

Jarduera kultural eta politikoa nahastu egiten ziren sarri, Gerra aurreko euskal abertzaletasuna bideratuago zegoen kultur jarduerara, lan politikoetara baino.



Egi Billa, 1969ko sanmigeletako emanaldian, irailaren 29an

El País Vasco aldizkariak 1926an argitaratutakoa horren adibide argia da: «No hay que confundir separatismo con nacionalismo, ni mucho menos con vasquismo. Las masas nacionalistas no son nacionalistas, las masas nacionalistas, por lo menos en Guipúzcoa, son más bien autonomistas, enamoradas de las costumbres y del idioma del país. En ese amor las masas nacionalistas no están solas. Antes de que el nacionalismo prendiera en las masas ya existía». Industrializazioak aldaketa ugari ekarri zituen Gipuzkoara eta aldaketa horien aurrean, sustraiei heltzeko beharra ikusi zuten askok. Baina, Urnieta euskal tradizio eta kulturari fidel



Egi Billa taldeko kideak antzezpenaren ondoren

izanagatik irekia zen «al agarrao» dantzatzeko aukera ere eskaintzen baitzuten herriko musika bandak jotzen zituen doinuek, dantza soltea alde batera utzi gabe. Abertzaletasuna indartsu zegoen. 1932ko apirilean Urnietako Euzko Etxea inauguratzeko Donostiako ezpata dantzari eta jai herrikoia, zein plazan mitin abertzalea egiteko baimena eskuratu egin zuten Angel Lasarteren eskaerak. Gainera, egun Idiazabal kalea denari Sabino Arana Goiri izena jartzeko eskaera egin zioten Arizmendik eta herriko beste zenbait jeltzalek Gerra Zibila baino lehen. Faxistak Urnietara iristearekin batera berriro Idiazabal izatera pasa bazen ere.



Emakume adoretsua

Maria eta Margarita

EUSKALTASUNAGATIK ZIGORTUA

Urnietara herri guztiz euskalduna zen orduan, kanpotik herrira gerturatzeko ziren erdaldun gutxiak ere euskara berehala ikasi beste erremediorik ez zuten, urnietarrekin hitz egiteko modu bakarra baitzen gerra aurretik. Ikastola sortzeko asmoa loratzen hasia zen urnietar euskaltzaleen baitan, baina 1936az geroztik guda giroak sufrimendu ugari ekarri zuen Urnietara ere. Abuztuaren 31n, Gipuzkoako Gerra Batzorde Karlistak Urnietako Alkate Lehendakariari bidalitako gutun batean argi adierazten zion: «La enseñanza, tanto en las escuelas

públicas como en las privadas, ha de ser eminentemente católica y española».

Errekete nafarrei Donostiarako bidea eragozteko helburuz dinamita jarri zuten Urnietara inguruan. Hala ere, Mola jeneralaren soldaduek, 1936ko abuztuaren 17rako Andoain inguruak hartuta zituzten eta iraila hasieran iritsi ziren Urnietara. Bandera hori-gorriak jarri zituzten erreketen eta karlistek herrian hartutako tokietan. Euskarazko antzezlanak taularatzeko arizmenditarrek erabiltzen zuten Urnietako Batzokia ere Falanjeak hartu zuen indarrez eta bertako kultur jarduera guztia ezinbestean eten behar izan zuten.



Erbestean zegoen anaiarentzat prestatutako familia argazkia

Arizmendi ahizpek ere jasan zuten faxisten indarra gazte izanik ere. Hirurak Andoainera joan eta ilea moztu zieten. «Etxera iritsi arte malkorik ez!», esan zien hirurei amak, eta baita hauek bete ere, hasierako momentu txarra pasata batere axola ez balitzaie bezala joan ziren Andoainera oinez, egunero agertu behar baitzuten bertan.

Miren eta Soledad Alkain Elozegi batetik eta Margarita, Maria eta Gloria Arizmendi Isasa ziren, euskaltzale eta aber-tzale izateagatik zigortuak. Izaera bizi eta euskal antzerkigintzarekiko zaletasuna ezagun egin zen Errepublikara garaian eta

ezagunak ziren Urnietan eta ondoko herrian, Andoainen. Zigor gisa, ilea moztu, rizino olioaren irenstarazi eta Andoaingo plazan eduki zituzten geldia, inora joan ezinik, barruak nahastu eta goitik egin zuten arte. Urnietako bost emakumeek tinko eutsi zioten duintasunari, izan ere, ilea moztu ondoren, Alkain eta Arizmendi ahizpek egunero Urigaingo komandantzian aurkeztu behar izaten zuten. Urnietatik Andoainerako bidea arrosarioa errezatuz edo euskal abestiak kantatuz agiten zuten, «Gora Euskadi Askatuta» oihukatzeke beldurrik ere ez zuten izaten. Andoaingo errepublikar asko izaten ziren Urnietako gaztetxoak Kaletxikitik Andoaingo Goikoplazara joaten ikusteko. Argi zuten ez zutela zertan lotsatua eta kuraia eta duintasunaren erakustaldi bikaina eskaintzen zuten egunero.

GERRAOSTE GOGORRA

Leherketa eta bomba hotsak isildu arren, askatasun falta eta errepresioa izan zen nagusi ondorengo urteetan. Lehenengo urte latzak pasa ondoren, askatasun

falta eta errepresioaren aurrean, Mariak Egi Billa antzerki taldea sortu zuen herriko zenbait gazterekin batera 1965ean. «1965ean sortu zen ikusirik bertako gazte batzuek, erriko illtasuna, alde bate-tik, eta bestetik berriz, bearra bai diru ordainketa batzuek egiteko, ta batez ere gaztiak elkartu ta danon artian giro bat sortzeko premia nabaritzen zutelako. Zerbait egin nai ta antzerki talde batekin asi ziren», utzi zuen idatzia Arizmendik eskuizkribu batean.

XX. mende hasieran antzerkigintzak garrantzia handia zuen Euskal Herrian, Gipuzkoako hiriburuko Victoria Eugenia antzokian programazio zabala eskaintzen baitzen, Santo Tomas egunean Antzoki Zaharra euskal antzerkiak eta euskaltza-leek betetzen zuten. Gainera, lehenago goi mailako jendearentzat ziren kultura jarduera herritarrengana iristea lortu zen euskal antzerkigintzari esker. Kultura zein politika oso presente zeuden gipuzkoarren bizitza sozialean. Bertako edo inguruko herrietakoak ziren antzezlanak egiten zituztenak. Taldeak afizionatuak izaten ziren gehienak, gustu edo zale-



Jostun bazkaria

tasunak bultzatzen zituen bertan parte hartzera, ondo pasatzeko eta, bide batez, euskal kultura eta euskara bultzatzeko, antzerkia kezka konkretu batzuen transmisore bihurtuz.

EGI BILLA TALDEA

La Voz de España egunkariko kritikariak Egi Billa Gipuzkoako «talderik aktiboena» zela esan zuen. Avelino Barriolaren *Gai dagoenaren indarra*, Toribio Alzagaren *Bernaiño'ren larriak*, Pedro Sarrigiren *Maite ere neurritz* eta Joshe Mari'ren *puxkak*, Antonio Maria Labayenen *Kalifornia Ku-ku*, Domejon de Andia eta Aga-



Antzezlaneko kartela

ren seme... *Ismael*, Estanislao Urruzola *Uxolaren Askatasun garrantza* eta Iñaki Begiristainen *Kiretsa Dari*, *Bakartasun billa*, *lurrun argi*; *Mugausle*, *Igartutako landarea* eta *Bata zu eta bestea ni*. Genero dramatikoko aktoreek emanaldiak sarri izaten zituzten eta herriz herri ibili beharra izaten zuten antzerki taldeek. Gero eta talde gehiago ziren euskarazko antzerkigintzan aritu nahi zutenak eta ohiko bihurtu zen

igande eta jai egunetako emanaldia herri askotan. «Etengabe ari dira lanian, aurkeztu dituzte an ta an ta an, mabitaraño. Estado de excepción garaian galarazita egon ziren ortaz gainera 1971n ikasi ta prest jarri ondoren antzeztu gabe gelditu ziran Larzabalen *Nor alkate* (jaun onen lanak debekatuak zeudelata). Batez beste 350 ekinaldi egin dituzte ba... antzerki bakoitza hogeita bost bat bider antzeztu izan dute. Bizkaia ta Gipuzko'n ez da izango uri eta erririk talde au ezagutzen ez duanik», idatzi zuen Mariak. Asko izan ziren antzeztu zituzten lanak: *Gai da goenaren indarra*, *Maite ere neurritz*, *Kalifornia Ku-Ku*, *Igartutako landarea...* eta zalantzarik gabe gehien antzeztu zutena Iñaki Begiristainen *Muga ausleak* izan zen, 38 emanaldi inguru eskaini zituzten Euskal Herriko txoko desberdinetan. Komediak eta gizarte gaiak lantzen zituzten batez ere, politikan gehiegi ez nahasteko arreta berezia jarritz. 1979. urtean *Egin* egunkariak (*Egin*, II. Urtea, 142. zenbakia) Egi bila taldearen estreinaldi baten berri eman zuen, Estanis Urruzola *Uxolaren Askatasun garrantza* obra politikoarena: «Askatasun Garrantza obrak Irlandako

errealitatearen bidez, euskal problema nazionala erreflejatzen du. Hiru familia agertzen dira, postura eta ideologia diferenterekin». Hainbestekoa izan zen lan honen arrakasta eskaera ugari jaso zituztela herri askotan bertan ere ikusi nahi zutela esanez. Hori da Legorretako kronikan kazetari batek egiten duen eskaera: «Pues sabemos del éxito que está obteniendo dicha obra por todos los pueblos donde se da a conocer, y creemos también de que llenaría de satisfacción a los muchos afi-

cionados de este pueblo dicha actuación y también porque *Uxola* cuenta también con muchas simpatías aquí en Legorreta».

EUSKALDUNTZEKO TRESNA

Aktoreek profesionaltasun handiz jardun behar izaten zuten; euskal antzerkigintza normalizatu zedin lortzeko, baina amateurrak ziren. Maria Arizmendik argi zuen taldearen helburua: «Beti goguan edukirik, bere eginkizun nagusia, euskal ohitura, jolas jator, euskal kultura eman ta zabaldu, ta... batez ere gure euskera maitia plazaratu, erakutsi ta danen aurrarian bere aberastasuna gooratzia izan da». Antzerkigintza, euskarazko gizarte bat sortzeko tresna baliagarri gisa ikusi zuen Mariak eta horri ekin zion Egi Billa taldearekin: «Lanketa honen arra sartzen bazaizu barruan izango duzu betirako. Astuna da, bai, baina sortzen dituen pozak ez dira arinak. Heziketa latza eta neketsua du antzezlanak, baina atsegin zoragarriak ere berekin dakartz eta jakintza alderdian herritarrei eskaintzen zaiona ez da txantxetako», azaldu zuen Egi Billako zuzendariak.

URNIETAKO ELIZ - ONDO ARETOAN
ANTZERKIA

Jorraitaren 18 an (Igandea) Arratzoaldeko, 6,30 etan
Igartutako - Landarea
 Egilea Iñaki Beguiristain - Taldea Urrietako "EGI - BILLA"

BANAKETA

KOLDO	Milani Etxebarria
NEKANE	Izlar Izaguirre
IGOR	Jokin Izaguirre
AITZIBER	Marta Beguiristain
KARMELE	Arantza Sannohacian
KEPA	Patxi Txaparategui
MIREN	Rosa Mari Txaparategui
MIREL	Josu (Txini) Gorruategui
JOSU	Josu Garmendia

Recomendat
Miren - Arizmendi

G A T A

Bai gorreraren alharrian aragindako antzerkia, eta gau - gaueko.
 Gure gaztelan sinbeste baliu egin eta sin ondorio ilunak sortarazten dituen droga madarikatua du antzerki onen gai garratz eta negargarria.
 Amasei urteko neketa bat nora eta zerlata laramakan droga zikiñak ager nai digu egiteak.
 Gardin - gardin agerri ere; Bizakumari zor zaien bagarmon eta lizale zipritindu gaberik, ordea.
 Txerto ezazate zuegan "IGARTUTAKO LANDAREA" rekin dakarizagun mentua.

ZURE ETXEO APAINGARRIAK - IZAGUIRRE TRESNA ETXEAN
 URNIETAKO, SAN JUAN 29 AN

Igartutako Landarea, Urrietan



Egi Billako antzezleak

Roke Lasarterekin Gerra aurretik oinarritzko zenbait ezagutza jaso zituzten Mariak eta bere taldekideek: gorputza zuzen mantentzeko, eskuak gehiegi ez mugitzeko, ondo ahoskatzeko... Garaiko joera plastikoei adi, bestelakoetan jartzen zuen arreta Mariak: testuen zuzentasuna, euskara zuzena eta ahoskera ona. «Itxiagoa ematen zuen, baina oso irekia zen», azpimarratu du Eugenio Arozena Intxisu antzerki talde aitzindariko buruak. Izan ere, Egi Billako antzerkigileek beste garai-kideagoetatik ikasitakoak dira, ezer baztertu gabe, Euskal Herriko egileen testu tradizionalistak taularatzen zituzten. Iñaki Begiristain, Uxola, Hartzabal... garaiko

egileei zegokien garrantzia ematen jakin zuen, beren tokian jartzen jakin zuen.

«Mariarentzat euskara bultzatzea eta herrian saltsa sortzea zen. Taldekide guztiak lagunak ginen, 20 inguru, mendira elkarrekin joaten ginen... deitu egingo zigun Mariak eta gu parte hartzeko prest agertu ginen», gogoratzen du Mari-lo Lasak, Egi Billako kide izandakoak. Taldeak antzezten zituen obrak Mariak berak aukeratzen zituen, paperak ere berak banatzen zituen, «baina gustura hartzen genuen». Ondo antolatzen ziren gazteak antzezlantarako beharrezko zituzten jantzi eta atrezoa bilatzeko. Obra

irakurri, behar zituzten gauzak zeintzuk izango ziren pentsatu eta etxeko gauzak eramanda agertzen ziren antzezleak obra prestatzera. Orduan Mariak ikusi eta berak antolatzen zituen beharrezkoak zein jantziei egin ziezazkieten konponketak. Jostun lanetan ere aritzen zen, beraz, Maria antzerki taldearekin ere, gazteek eramandakoarekin obrarako egoki izan zitezkeen jantziak atontzen baitzituen.

Herriz herri ibiltzen ziren Egi Billako antzezleak beren obrak taula gainera eramateko: «Batzuetan kotxetan joaten ginen eta besteetan autobusetan, ijitoen tankera izaten genuen. Guk antzerkia egin eta ondo pasa nahiko genuen. Horrela ibiltzen ginen, adarrak edo obrarako behar zena bildu eta kotxean sartzten. Lehen antzerkian deskantsua izaten zen, orduan bokata batzuk ematen zizkiguten eta kito, gu gustura».

Maria apuntadore izaten zen, aktoreei testuko esaldiren bat ahaztuz gero gortina atzealdean izaten zen bera testua esateko, «beraz ez genuen arazorik izaten. Publiko aldetik exigentzia ere ez zen izugarria. Herri askotan ez zegoen an-



Baimenen ordainketak


tzerki talderik, herriko jendea zen, zale-tasunagatik egiten genuen». Marilok argi du gaur egungo antzerkigintzak eta garai hartakoak zerikusí gutxi dutela: «Orain ondo egitearekin ez da nahikoa, zerbait gehiago eskaini behar da».

Urnietako parroko zen José Goya Azurmendik 1970eko irailean egindako eskae-



Egi Billa egunkarian

rari erantzunez, 1971ko maiatzaren 7an, Urnietako Udaleko Komisio Iraunkorrek Elizondo zineari baimena eman zion, hobeki esan «la oportuna licencia municipal para la instalación de un cinematógrafo en la Plaza San Juan». 1968rako, ordea, Elizondo antzokia zen jada Juan M.^a Aguirre arkitekto teknikoak irailean idatzitako memorian ageri denez, gainera, 362 aulki zituen parrokiakoa zen lokala. Instalazioek garrantzia handia izan zuten herriaren jardura sustatzeko, *El Diario Vasco* egunkariak Urnietako kronikak idatzitakoaren arabera: «Ez du



1975eko azaroaren 19ko baimena

ematen, egia da, antzerki bat jartzeak gure erritxo batean, ainbesteko garrantzirik izan bear duanik emen, gure aldetik gai ortaz ezer esateko, ez gure idazkiak inportantzirik dutelako, baizik antzerki bat jartzeak orrenbestekoa sekulan izan bear ez lukelako, bañako onelakoa da gure antzerki-giroa, exkaxa eta urriya, eta onek bultzatzen gaitu onelako gauz batengatik zerbit esatera. Beti izaten dira jende batzuk edozarren kontra joan bearrak atzea egiten ez diotenak, eta oietako bat da Egi Billa taldea, itxure behintzat».



Deia 1978

Nortasun handiko emakumea

ANTZERKI MUNDUA. ZATIKETA

Antzerki mundua bitan banatuta zegoela esan zuen 1978ko irailaren 10ean Amatiño gazteak *Deian* argitaratutako albistean eta egoera «euskal gizarteak jasaten duen bitasunaren lekuko» zela azpimarratu zuen. Izan ere Kultura Saila eta Euskal Antzerki Taldeen Biltzarra banatuta zeuden: «Batzuen aldetik, euskal mundua ez ezagutzean (kasu honetan euskal antzerki mundua) eta, besteen aldetik, euskal ekintzek aparatu ofizialei ez lotzeko duten inertzia, egiatzko euskal alternatiba batez argi eta garbi azaltzen ez diren artea, behintzat. Honetaz, erdal taldeak,

temperamentuz ere, beti dira oportunistagoak». Eta ziur gaineratu zuen: «Era batez zein bestez, euskal gizartearen bitan banatzearen beste lekuko bat baino ez da, antzerki inguruan gertatutako hau».

Baserri mundua aldatzen ari zen, desgertzen, kezka modernoago batzuek hartu zuten euskal gizartea, abangoardiak agintzen zuen. Artista mugimendu interesgarria sortu zen, mugimendua handia zen eta esperimentazioa ere antzerakoa. Behar ideologiko berriak sortu ziren eta Egi Billak eskaintzen zituen antzezlan kostunbristak alde batetara uzteko garaia iritsi zen, gai konplexuagoen beharra zegoen. Giroa egoera politikoak baldin-

tzatua zegoen, gizarte euskalduna bera ere zatitua zegoen eta horren isla zen antzerkigintza bera ere. Instituzioetatik kanpo leherketa kulturala gertatzen ari zen, eta bilaketa lana eta esperimentazioa ziren nagusi.

Euskal antzerkigintza mikazten joan eta adinean gora joan ahala utzi zuen Mariak antzerkigintza, berak ereindakoak bere bidetik zihoala ikusi zuenean, 1980. urtean. Pixkanaka batzokietan antzerki emanaldien antolakuntzak behera egin zuen, gainera.



Maria Arizmendi



1918ko Josepe Albaiterua

IZAERA GOGORRA

Ezin uler daiteke Maria Arizmendiren ibilbidea bere izaera gogorra aipatu gabe. Bere pentsamenduei tinko eutsi zien garairik gogorrenetan ere horrek arazo bat edo beste ekarri zizkion arren eta bere izaera ere baldintzatu zuen bere ideiak defendatzeko beti gogor egin behar horrek ere, irribarrea alde batera utzi gabe.

Idea eta teoriak gain, tinko eusten zien ekintzetan ere bere ideiei, hala egin zuen baita 1970ean, Burgoseko juizioko ma-

nifestazioetan: gaztetxoak izaten ziren manifestazioetan eta horien artean, Maria Arizmendi eta Sabina Arruarte izaten ziren, Guardia Zibilak identifikatzeko eskatu orduko, beraiek izenak arduradun gisa emateko prest. Bere ekintzetan ere ausardia politikoa erakusten zuen, adorea eta kemena. Batez ere, injustizien kontra borroka egiteko indar handia zuen eta besteen pentsamenduekiko errespetua eta ulermen zabala bere ideologiatik haratago. Kaxetako etxea Franco garaian babesleku izan zen askorentzat.


Eusko Alderdi Jeltzaleko militante izan zen gaztetatik, baina partiduan bertan banaketa gertatu zenean Eusko Alkartasunera jo zuen, gogor orduan ere, tinko, Carlos Garaikoetxeari babeska eskainiz. Hauteskondeetarako EAko zerrendetan joateaz gain, baserriz baserri aritu zen kanpainan Maria, beti ere tinko, baina «arerio politiko» izan zitezkeenekin harreman ona mantenduz.

Mariak ez zuen etxeakoandre izaerarik, etxeakoak eginda izaten zituen eta horrek bestelako zaletasun eta kezketan guztiz aritzeko aukera eskaintzen zion.



Urnietan jaso zuen omenaldia

Amona Anttonik laguntzen zion horretan eta arteetarako erakusten zuen abilezian trebatzeko aukera amonak egiten zion lanak erraztu zion. Bere iloba Agurnek oso gogoan du izebaren izaera indartsua: «Inork ez zuen gobernatzen bera, kontrarik egin gabe». Emakume Abertzaleen Batzako kide izan zen Arizmendi, ideia kontserbatzaileak zituen gaurkoe-



Jostun txartela



Margarita eta Maria ahizpak dotore

kin alderatuz gero, baina emakume batzuek izan zuten beren bideari jarraitzeko aukera eta horri gogor heldu zion Mariak.

Gaztetatik Txapelenea ondoko pisura joaten ziren bi ahizpak jostera, Margarita zen titular eta Maria laguntzaile aritzen zen, beranduago Kaxetan jarri zuten tailerra: behean saldu, goian etxea zuten. Lanari esker independentzia ekonomikoa lortzen zuten, garai hartan askok ezin zutena: burujabe izatea.

Denetik josten zuen, ezkontza, jauntzeak, baita hiru ahizpen ezkontza trajea ere bi ahizpek egin zuten. Bertan kontu ugari izaten zituzten, bezero, ikasle eta jostunen artean. Eta moda ardatz izaten zuten, aldizkari zein egunkarietan Europako azken moda joerei adi izaten zirenetakoak baitziren arizmenditarrak. Igandetan Donostiara joaten ziren biak elegante jantzita, ligatzera, baina ez dute gogoan Mariaren bikoterik.

Hori bai, Maria «beti liburuak ordaintzen ari zen», gogoratzen du Agurne bere ilobak. Autodidakta izan arren, euskara

eta euskal kulturaren ezagutza zabala lortu zuen, garaian eskura zitezkeen liburu eskasak irakurrita eta prentsari adi egonda, batez ere. Bere ikasle izan zen Maripi Sarasolak artistatzat du Maria Arizmendi, «artista euskaltzalea. Denetik egiten zuen, antzerkia, kantua... oso detailista zen estetikaldetik. Ausarta zen, izaera fuertekoa, gaitasun handikoa. Suertea izan genuen herrian horrelako pertsona bat edukita».

Sekula ez zuen adinik esan, noiz jaio zen eta zenbat urte zituen jakitea oso zail jarri zien besteei, «oso presumida zen, bai», azaldu du Agurnek. Hainbeste, argazkia prestatuta utzi zuela bera hiltzen zenerako eskelan jartzeko. Beti txukun eta elegante joaten zen Maria, arropatik hasita, noski, berak egiten baitzituen beretzat egoki josten zituenak. «Oso guapak ziren bi ahizpak» eta hori zaindu egiten zuten.

Kaxetako etxea irekita edukitzen zuten beti arizmenditarrek, beti kafea izaten zuten sutan, bisitaren bat bazen eskaintzeko. Beheko pisuan, sala bat zegoen bezeroek eskatutako arropa bertan proba zezaten eta goian tailerra zegoen «oso ondo josten zuten», gogoratu du Mari-



Maria Arizmendi

pik. Patroiak egiteko igandetan Donostiara joan eta Otaegin hartutako pastelak biltzeko paperak erabiltzen zituzten eta telak Arizalan erosten zituzten.

Gainera, guztiz lorezalea zen, elizara ere etxekoak eramaten zituen, bera ardurtzen zen atontzeaz: geranioak...

«Zorrotza zen, baina goxoa, gazteekin ondo moldatzen zena», azpimarratu du Marilok antzerki taldeko kide izandakoak. «Bai jostundegia dela edo kantatzeko kontuak direla, neri beti, jende artean eta gazte jende artean ibiltzea tokatu zait», esaten zuen Mariak.



Egape ikastola 1969an

EGAPE IKASTOLA

Urnietan zegoen mugimendu euskaltzalearen baitan, Gerra aurretik ere ikastola sortzeko asmoa errotuta zegoen, baina Gerra Zibilak etena suposatu zuen ekimen horretan ere eta 1966ra arte ez zen Egape ikastola sortu. Ikastolaren sorreran bere ekarpena egin zuen baita Mariak. Urnietako guraso zenbaitek seme-alabei heziketa euskalduna emateko beharra ikusi bezain pronto, han zen Maria, laguntzeko prest. Egape ikastola, parrokiako lokaletan, Elizondo zinemaren azpiko lokaletan hasi zen.

Maripi Sarasola Mariarengana jostera joaten zen gazteetako bat zen, eta berehala ikusi zuen Mariak Maripik balio zezakeela hain desiratua zen ikastolaren proiektua abian jartzeko. Honen euskaltzaletasun eta haurrekiko zaletasuna ezagututa ikastolako hastapenentarako aukeratu zuen. Eta ondo aukeratu ere, primeran bete zuen bere lana ikastolako hasierako urte gogor haietan eta bertan jarraitzen du lanean urte batzuk beranduago Egape Ikastola publikatu den garaian ere. Magisteritza zuen neska euskaldun baten bila zebiltzan eta Maripi topatu zuten, oraindik magisteritza



Eliza atarian



Urnietan jaso zuen omenaldia

ikasi gabea, baina balio zezakeela uste zutena.

«Nik ez nekien ondo zertara nindoan», gogoratzen du Maripik. Jardín de Infancia zuen neskatsa bat nahikoa zen garai hartan, elizaren menpe zegoen *haurtzaindegi* bat jartzeko, praktikak egin ondoren hasi zen haurrekin Maripi eta, bitartean, magisteritza ikasteari ekin zion lan horretan jarraitu ahal izateko. Esfortzu handia egin behar izan zuen Maripik garai hartan, baina berak juntako kideek egindakoa azpimarratzen du: «Babestuta sentitzen nintzen, edozertarako, hor zeuden beraiak, laguntzeko prest». Bertan zeuden Sabina Arruarte, Antselmo Unanue, Maria Arizmendi, Xabier Larretxea, eta Benantxio Laskibar (apaiza), 16 urteko irakasle gazteari lagundu eta babesa emateko.

ELIZA, BIZITZAKO ABIAPUNTU

Mariari buruz hitz egiterakoan ezin da aipatu gabe utzi Urnietako Parrokiarekin zuen harreman estua, bertan bizitza egiten zuen. Bera zen euskal Elizako mugimenduan hain parte garrantzitsua duten laikoetako bat. Loreak hain gogokoz zituen, beti zuen lore sorta bat familia edo ingurukoei oparitzeko prest eta, nola ez, Urnietako eliza eta ermita alaitzeko ere bai. Implikazio izugarria zuen eta bere sentsibiltate guztia parrokiaren esku jartzzen zuen: eliza atontzen zuen (loreak eta zapiak txukun jarrita egon zitezten arduratzen zen), 11etako mezetako koroan tonua ematen zuen igandero eta Eguberritan, sanmigeletan eta egun berezietan abestu ere egiten zuen «soloak egiten



Egia Billako antzezle taldea

zituen, oso ahots ona zuen», azpimarratu du Maripik.

«Eliza ere berak gobernatzen zuen», azpimarratu du bere iloba Agurnek. Denezik egitera ohituta, elizan ere gauza bera egiten zuen eta elizako bizimoduan guztiz sartuta zegoen Maria, izan ere, Eliza zuen bizitzako abiapuntu. Igandeko mezataria fidel, herritar askoren bilgune bihurtzen zen asteroko hitzordua.

SASI GUZTIEN GAINETIK

Euskarari eskaini zion bere bizitza eta lana Mariak. Egun, Mariak zein berak bezalakoixeak direnek egindako lanaren fruituak jaso ditugu ondorengo belaunaldiek, Urnietan zein Euskal Herri

guztitan. Momentu historiko eta egoera politiko konkretu baten adierazgarri da Maria Arizmendi. Gainera, berak zituen baliabideak ondo aprobetxatzen jakin zuen, izan ere, emakume independentea zen, lana egiten zuenez dirua zuen eta denbora bere zaletasun zein ideologiari fidel izanez jarduera ugari egiteko baliatu zuen.

Euskara eta euskaltzaletasunaren garai emankorrenetako batetatik Gerra Zibileko errepresiora, trantsizioko beldurrera eta ondorengo teknologia aurrerapen azkarrera pasa zen Maria eta egoera aldaketa horietara egokitzeaz gain, bertan bere ekarpenak egiteko gai izan zen, beti bere ideologiari fidel. Euskararen aldeko lanean etengabe jarduna, ikasto-



Azpeitian jaso zuten omenaldia

laren bultzatzaile, Urnietan bere fruituak utzitakoa da eta Euskal Herria bera bezalakoan lanei esker eraikia.

Hurrengo txangoa prestatzen ari zela 2001eko abuztuan gidatzeko baimenik ez zuen auto batek harrapatu eta ospitaleratu egin behar izan zuten. Herritarrek Maria gaixorik zegoenean uneoro berearekin egoteko txandak antolatu zituzten, bakarrik egon ez zedin eta familiari laguntzeko. Egun batzuk beranduago, abuztuaren 13an, hil zen ospitalean. Hiru anai-arrebak, hain bizitza gogorra bizi ondoren istripuetan hil ziren.

Hurrengo belaunaldiek gogoan dute Maria. Urnietak eman duen pertsona karismatikoenetako bat izan da Maria. He-

rritarrek maite zituena eta herritarrek oraindik ere maite dutena. Bera joan da, bana Mariak emandakoak gure artean jarraituko du luzerako.

Urnietako ELIZ-ONDO Antzokian
 Epailak. 19 (1000 Euro egone) Arantaldako 6'11) 100

ANTZERKIA
MUGA-USLEAK
 (1973 Agora Saria)

EGILLEA: Begintekin' lar Itaki
TALDEA: Urnietako Egi-Bila

BANAKETA

ANTTON	WOLFF, EUGENIO
JUSTINA	GRANER, TAN SOBANTAN
INAZO	JOSE GARMODIA
KOLDO	JOSE GARMODIA
ERRAMUN	JOSE GARMODIA
IRANDE	JOSE GARMODIA
JOSMAN	JOSE GARMODIA
ARANTZA	JOSE GARMODIA
TIBURTZIO	JOSE GARMODIA
MATIAS	JOSE GARMODIA
MARIE	JOSE GARMODIA
NICHEL	JOSE GARMODIA
NEKATZA	JOSE GARMODIA

Donosti-Aurrerki-Kutxa

Kartela



Maria Arizmendi

BIBLIOGRAFIA

- AIZPURU, Mikel: *El Partido Nacionalista Vasco en Guipúzcoa (1893-1923): orígenes, organización y actuación política*, EHU, 2000.
- AMUATEGI, Teresa: *Urnieta*, CAM, 1976.
- AMUATEGI, Teresa: *Urnieta. Etxe eta baserriak*, Udala, 1998.
- ATXAGA, Mikel: *Gure Urnieta*, Udala, 2000.
- BARRUSO, Pedro: *Violencia política y represión en Guipúzcoa durante la Guerra Civil y el primer franquismo*, Donostia, 2005.
- GIL TOMBELLIDA, Mari Karmen: *Antzerkia Gipuzkoan (1970-1986)*, Michelena Artes Gráficas, 2004.
- LASA, Xabier: *Ahozko historia: oroimenean lokartutako abotsa*. Andoain, 2006.
- LASA, Xabier: *Gerra aurreko eta ondorengo euskal antzerki herrikoia Andoainen*. Leizaur aldizkaria, Andoain, 1994.
- MURUGARREN Zamora, Luis: *Urnieta*, CAM, Donostia, 1974.
- SALINAS, Aitziber eta AGUIRRE, Juan: *Urnieta irakaskuntzaren historia laburra*, Eusko Ikaskuntza, 2007.
- Urnieta Udal Agiritegia.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzagarik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Arizmendi familiaria eta bereziki Agurne Arizmendiri
- Urnietako Artxibategiko arduradun Marijo Henriquesi
- Egi Bila antzerki taldean aritu zirenei eta bereziki Marilo Lasa eta Xabier Ubillosi, Maripi Sarasolari, Eugenio Arozenari, Mikel Atxagari, Mikel Izagirreri
- Emakundeko artxiboari

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2009ko ekaina

Ale-kopurua: 2.300

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop.
Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimaketa: Grafo, S.A.
Avd. Cervantes, 51 - 48970 Basauri (Bizkaia)

ISBN: 978-84-457-2966-3 (Lan osoarena)
978-84-457-2969-4

L.G.: BI - 1701-09

BIDCGILLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco